



Eman hegoak euskarari



Karmele Jaio, erizain irakurzalea eta hirurok

Zu zara Jon Kortazar?, Larrabetzuko baserri batean Arestiren liburu bi aurkitu dituen?

JON KORTAZAR



Ez dut nik Karmele Jaio askotan ikusi. Ez dut berarekin maiz hitz egin. Mezu elektronikoz eta horrela, bai. Baina hitzaldi batera gonbita egin nion batean kontatu zidana ekarri nahi nuke orrialde honetara.

Karmele Jaio eta erizain irakurzalea

Eta honela hasi zen Karmele Jaioaren kontakizuna: Bazen behi idazle bat... Bada, bazen behin Karmele Jaio ebakuntza zain esku-ohet batean ez zanda, larri eta urduri operazio-gelara sartu behar zutelako, eta ez da egoera hori inoiz goxoa izaten. Eta hain egora go-

rrian zegoela, erizain irakurle bat hurbildu zitzaion eta galdetu:

– Karmele Jaio zara, ezta?

Eta behetik gora begiratu, hitzik gabe, buruarekin baietz egion zion idazleak. Orduan erizainak egile minduaren liburu bat atera zuen eta galdetu:

– Sinatuko didazu liburu hau, mesedez?

Ez zen momenturik egokiena ziurrenik liburu bat sinatzeko, baina hala eta guztiz ere sinatu egin zion idazleak; trantze hartan ere, idazleak beti idazle. Eta zalantzarik ez, irakurle amorratua horretan ere irakurle mitozalea.

Harrezkero, beti izan dut

Karmele Jaioaren patuagatik inbidia pixka bat. Ezagutu egiten dute idazleak, kalean agurtu esan ohi da, baina ebakuntza aurretik ere agurtu eta gurtu egin dute, ezagutu, nahiz eta unerik aproposena izan ez.

Karmele Jaio eta biok

Egia esango dut, niri ez zaizkit horrelakoak gertatzen. Nire ikasleek ere, esango nuke, ozta-ozta dakite azaltzen ari naizen irakasgaiak zer idatzi dudana. Orain gutxi, beste irakasle batetek esan zidan ikasleek ez dakitela nor den Joseba Sarrionandia. Hori horrela balitz, eta zalantza dut, nola ezagutuko nauten ni Joseba Sarrionandiaren

izena arrotz egiten bazaie.

Beraz, ezezagun! Ezezagun, aurreko eguna arte. Ospitalean nuen hitzordua. Han agertu nintzen txintxo-txintxo eta ordurako. Oftalmologia saila zen, nirea ez baitzen ebakuntza kontua. Aulkian jesarri bezain pronto, hara non medikuak esaten didan (nire irakurlea ez baitzen erizaina):

–Zu zara Jon Kortazar?, Larrabetzuko baserri batean Arestiren liburu bi aurkitu dituen?

Agggg! Ai ama! Gorritu nintzen berehala eta azaldu nion zoritxarrez ez zirela liburu bi, soneto bi baizik, eta ez nituela nik aurkitu, baserri hartan bizi izan zen Marivi Gaubekak baino. Hark aurkitu, jaso eta gorde zituela.

Jarraitu zuen esanez gogoan

«Une batez Jaio eta biok batera egon ginen ospitale bateko osaketa gela batean»

zuela nola agertu ziren Arestiren poemok, gogoan zuela zer kontatzen nuen nik, Chicagon nengoela bakartasun hotzean eta nola alaitu zidan berriak egora latz hura. Buruan gordea zuen historia.

Aipatu nion ez zela nire meritua izan. Ez zen kikildu hala ere, aipatu zidan egunkarian nire izena ikusi zuenean konturatu zela Oftalmologia saileko gaixoa nintzela, eta nik ulertu nuen sikiera nire idazki horren irakurlea nuela, eta aitortu zain egon zela ni agertu arteko kointzidentziak, nirekin hitz egiteko.

Datuen konfidentzialtasunari buruzko legea dela eta, eta zintzotasunagatik ere bai, ezin izan nion nola zuen izena galdetu, nor ote zen, baina ez da dudarik betiko zordun geratu natzaioa, une txiki batean Karmele Jaioaren nobelen parera igo zituelako nire idazki xumeak.

Une batez Karmele Jaio eta biok batera egon ginelako ospitale bateko osaketa gela batean erizain eta mediku irakurzaileen esku seguruetan.

Mikropolifonia

KARLA FERNÁNDEZ DE GAMBOA VÁZQUEZ

Baliteke batzuentzat Joseba Santxo ezaguna ez izatea, ez baitu haurrentzako liburu-rik argitaratu 1995ean 'Ditxosozko ditxolaria' idatzi zuenetik. Hala eta guztiz ere, eskertzekoa da azken hamarkadetan euskal haur eta gazte literaturaren alde egin duen lana. Izan ere, 'Begiko' zigiluaren argitaratzailea izateaz gain, Roald Dahl eta Gianni Rodariren hainbat obra euskaratu ditu; are gehiago, 2015eko Victoria-Gasteiz itzulpen-saria irabazi zuen, Road Dahlen 'Jira, Peli eta Hirurok' (Begiko) euskaratzeagatik.

'Nire baitako ahotsak' liburu berezia da, irakurle nerabeei zuzendutako literatura-proposamen ausarta. Liburu bi zati nagusitan banatzen da. Lehenengoan, Santxok 2021eko abuztuan zehar idatzitako 31 mikroipuin biltzen dira, bat eguneko. Idazleak berak liburuaren atari-

koan azaltzen duen bezala, mikronarrazio guztiak desberdinak izan arren –bai forman bai edukian–, guztiak helburu bera dute: irakurlearen emozioak bilatzea. Bilatu ez ezik, lortu ere egiten du. Ipuin guztiek lortzen baitute, bakoitzak bere erara, eginkizun hori. Horietako batzuek irribarre txiki bat eragingo dute, beste batzuek samurtasuna edota malenkonia, eta beste batzuek giza izaerari buruzko hausnarketak. Hori bai, guztiz gomendagarria da egilearen aholkuari jarraitzea eta mikroipuinak datozen hurrenkeran irakurtzea, horiek ezkututzen duten barne-itsumusua igartzea plazer erantsia izango baita.

Liburu honen bigarren zatian, Santxok narrazio labur bakoitzaren sormen prozesua aletzen du, ipuin bakoitza nola eraiki duen aurkezten du zintzotasun poetikoz. Opari ederra kontakizunen atzean zer ezkututzen den jakiteko gogoarekin geratzen diren irakurleentzat. Azkenik, eta Santxok mikroipuinaren generoarekin irakurle moduan izandako harremana azaldu ondoren, mikroipuinak idaztera animatuko du irakurlea. Ez ahaztu, «ondo idazteko, asko irakurri behar da».



NIRE BAITAKO AHOTSAK
JOSEBA SANTXO
Begiko. 176 or.
12,05 euro

LABUR LABUR

Uxue Alberdiren 'Kontrako ezta' lana, katalanez

EL CORREO

Uxue Alberdik 2019an argitaratu zuen 'Kontrako ezta' (Emakume bertolarien testigantza) saiakera, Susa argitaletxearen Lisipe bilduman, hain zuzen ere. Eta, orain, urte batzuk geroago, katalanez ere irakurtzeko aukera izango da Pol-len Edicions argitaletxearen esker.

Elgoibarko idazleak hamabost bertolari elkarrizketatzen ditu liburuan. Helburua ez da bertogintzaren teknika finduez, koplen kalitateaz edo zortzikoen 'flow'-az mintzatzea, baizik eta «horiek guztiak nortzuek, nondik era norentzat sortuak diren aztertzea; bertolaritza praktika sozial bat baita eta praktika sozial oro baita gure garaiko botere harremenen dispositibo. Hala adierazten dute elkarrizketatuek», diote argitxalek lanari buruz.

Izan ere, emakume asko aritzen dira bertolaritzan. Hori entzuten dugu behin



Uxue Alberdi.

eta berriro, «baina datuak eta pertzepzioak ez datoz bat», gaineratzen dute. «Guk badakigu emakumeen ikusgarritasuna gizonen desiraren neurria egin dela, eta, Alberdik bikain argitzen duen moduan, gizon publikoaren osagarri rola betetzen duen bitartean, emakumea (singularrean) onartua da gizonen espazioetan, baina gizonenak dira espazio publikoak», azaltzen dute.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

2 Animalia domestikoak

Esti Martinez. Elkar

3 Alaska

Castillo Suarez. Elkar

4 Munduari bira eman zion ontzia

Joseba Sarrionandia. Pamiela

EZ FIKZIOA

1 Pantailen garaipena

Iñigo Martinez. Elkar

2 Zaintzaren hariak

Felix Arrieta. Elkar

3 Moio-gordeteza ezinezkoa da

Kattalin Miner. Elkar

4 Euskal herriko 40 emakume

Batzuk. Beta ediciones